



Gatzozpindu Dinamizazio Politikorako Ikastaroa

Zer aurkituko duzu dokumentu honetan?

- 1) Zein beharrei erantzun nahi die ikastaroak?
- 2) Zergatik/zer lortu nahi dugu?
- 3) Ikastaroaren helburuak
- 4) Norentzat egin nahi dugu
- 5) Dinamizazio nola ulertzen dugu?
 - 6) Gaitegia
 - 7) Formatua
 - 8) Matrikula

1) ZEIN BEHARRARI ERANTZUN nahi diogu ikastaro honekin?

Herri Mugimenduko erakundeen **eguneroko funtzionamenduan** hainbat jarduera egiten ditugu **talde-lanean**: bilerak eta asanbladak, debate eta analisiak, erabakitze-prozesuak, kanpainak, topaketak eta jardunaldiak, lan-banaketak, talde ezberdinen arteko elkarlanak, planifikazio eta ber-antolatze prozesuak, ez-adostasunak, gatazkak, etab.

Taldeko lan-dinamika eta prozesu horiek egiteko modua hobetzeko beharra sentitzen dugu maiz, hau da, talde-lan hori eraginkorra eta guztion artean partekatua izateko beharra; bai gure proiektu eta helburu politikoetan aurrera egiteko, eta baita militantziaren jarduera emankorra, osasuntsua eta askatzailea bihurtzeko ere.

Beharrizan eta erronka horiei erantzun nahi dio dinamizazio politikoaren inguruko formazio honek. Zehazki ondorengo gai hauek landu nahi ditugu: **funtzionamendua** hobetzeko eta **talde-kohesioa** zaintzeko mekanismoak; **ezadostasun eta gatazken bideratze emankorra** lortzeko bideak; eta gure **proiektu politikoak modu**



Gatzozpindu Dinamizazio Politikorako Ikastaroa

erakargarri eta eraginkorrean jendarteratzeko orientabideak. Guzti horretaz gehiago jakin nahi dugu, taldearen jarduera politikoa dinamizatzeko ezagutzen ditugun tresnak elkartrukatuz, eta ezagutzen ez ditugunak elkarrekin ikasiz eta gure taldeetan praktikatuz.

2) ZERGATIK/ZER LORTU NAHI DUGU? (ekimenaren borondate edo intentzio politikoa)

Euskal Herriko herri mugimenduko **erakundeen funtzionamendua hobetzea**, horixe da ekimen honen asmoa eta gogoia. Gure erakunde eta taldeen lan-dinamika politizatzea eta behar duen garrantzia, arreta eta zaintza ematea. Horrela, pertsonen zein taldeen **jarduera militantea indartuz eta eraginkortuz**, herri mugimenduetako proiektu politikoak **intzidentzia politikoa handitzea** eta, aldi berean, jarduera militantea betegarria eta askatzailea izatea.

Horrekin batera, aurrerapausoak eman nahiko genituzke herri mugimenduek **modu autonomoan erantzun** dezaten euren erakundeen eguneroko jardueran, edota eragile ezberdinen arteko aliantza-prozesuetan, sortzen diren beharrak **bilera, asanblada eta prozesuen antolaketa eta dinamizazioan**.

3) Ikastaroaren HELBURUAK

- Herri mugimenduko hainbat kide euren erakundeen barne funtzionamenduaren dinamizazioan **trebatzea eta horretan ahalduntzea**.
- Taldearen lan-dinamikak, **talde-harremanak eta egiteko moduak politizatzea**: “Zer” egiten dugun zaintzeaz gain, “nola” egiten dugun ere zaintzea. Garrantzia eman, arreta jarri eta tresnak eskuratzea.
- Prozesuen dinamizaziorako **baliabideak sortzea eta haiekin esperimintatzea**.
- **Dinamizaziorako sarea** eratzen joatea: herri mugimenduko hainbat kide beste kolektibo edo elkarguneetan



Gatzozpindu Dinamizazio Politikorako Ikastaroa

dinamizazioak egiten trebatzea. Etorkizunean, kanpoko dinamizazioa behar dugunean, horri erantzungo dion elkartruke sarea sortzea.

4) NORENTZAKO egin nahi dugu?

Formazio hau Herri Mugimendu eta herri ekimenentzat da. Lehenetasuna beraz borroka-sektore ezberdinetan aktiboki lanean ari diren kolektiboek izango dute. Hala erabakiz gero, kolektibo bakoitzak pertsona bat edo bi bidaliko ditu ikastaroa osotasunean egiteko.

Posiblea da ere, HM edo herri ekimenetako kideek ikastaroa egin nahi izatea, kasu horretan, **kolektiboaren babesa eta inplikazioa**ekin egin beharko dute.

Formazio hau profesionalizatuagoak dauden bestelako elkarte, sindikatu, gobernuz kanpoko erakunde eta eragileentzat ere bada, beti ere eraldaketa sozial askatzaileak sustatzen dituzten eragileak direnean.

Ez da aholkularitza edota *Couching* lanetan aritzen diren edo aritu nahi diren pertsonentzat.

5) DINAMIZAZIOA nola ulertzen dugu? Zertaz ari gara?

Dinamizazio politikoaz edo herri Mugimenduetako prozesuen dinamizazioaz hitz egiten dugunean, zertaz hitz egien ari gara? Gure ikuspegitik, kolektibo batek bere egunerokoa duen **antolakuntza eta funtzionamendu prozesuari laguntzea** da dinamizatzea. Dinamizazio-lana hartzen duten kideek taldeak egin nahi duen prozesua laguntzen dute. Laguntzea bere bi adieretan: batetik bidelagun izatea (bidea elkarrekin egitea) eta, bestetik, bide horretan sortzen diren zailtasunen aurrean taldeari orientabideak eta baliabideak proposatzea.

Fazilitazioa, edo talde-lana erraztea, bada zeregin horiekin harremanetan dagoen beste kontzeptu bat. Guk **“dinamizazio politikoa”** kontzeptuaren aldeko hautua egin dugu, hurbilago iruditzen baitzaigu herri mugimenduen eguneroko jarduerarekin eta hiztegiarekin.



Gatzozpindu Dinamizazio Politikorako Ikastaroa

Gure adieran dinamizatzea litzateke, beraz, **edozein prozesu edo lan-saiok** (bilera, asanblada, topaketa, elkarlana,...) **eskatzen duen prestaketa eta zaintza egitea** alderdi ezberdinetan: helburuen argitasuna; metodologia edo saioaren ibilbidea (nola lan egingo dugun); bitartekoak; debateak (irekitzea, ixtea, sintesiak, jarraitzeko aukera ezberdinak proposatzea,...); kide ezberdinen parte hartzea (ahots guztiak entzutea); giroa eta emozionalitatea (energia, motibazioa, kohesioa, nekea, isiltasunak,...); denboraren kudeaketa; erabakitze prozesua, etab.

Dinamizazioak taldearen eginbeharra prestatu eta zaindu egiten du nahi baino gehiagotan gertatzen zaizkigun dinamika edo joerak ekiditeko asmotan: helburuetatik urruntzea edo nahastea, debatean dispertsatzea edota debatearen noraeza, kideen parte hartze desorekatua, ezadostasunetan blokeatzea, denborak txarto kudeatzea, gatazkak ukatzea edo ez lantzea, jarrera harroak eta hierarkizatzaileak, botere-desorekak, etab.

Dinamizatzaileak taldearen prozesua laguntzen du, baina ez du zertan beti oso aktiboa izan behar, **protagonista taldea da**. Dinamizazio-lanak talde barruko zein kanpoko pertsonak egin ditzakete, kasu batzutan dinamizazioa kanpoko norbaitek egitea mesedegarria izan daiteke, baina beharrezkoa iruditzen zaigu taldearen nondik-norako nagusiak ezagutzea.

Dena den, **dinamizazio-lanak kolektiboko kide ezberdinen artean txandakatzea iruditzen zaigu egokiena**, eta horrela denok kontzienteagoak egitea gure kolektiboan dagoen dinamika, rolak, dibertsitatea, norberaren posizioa eta rola, indarrean dauden nahigabeko inertziak, norberak lan-taldearekiko eta proiektuarekiko duen ardura, etab.

6) GAITEGIA

1. DINAMIZAZIOA

Lehenengo eta behin dinamizazio politikoa zer den eta zertarako landuko dugu. Bigarrenik, dinamizatzailearen funtzioak ezagutuko ditugu eta berengan dinamizazioa sortzen dituen ondorioen kudeaketaz hitz egingo dugu, besteak beste.

2. SAIOEN PRESTAKETA

Saio/tailler/bilera guztiak faseak eta zeregin desberdinak dituzte eta horiek nola jorratuko antolatuko dugu. Horretaz gain, taldearen emankortasuna, antolaketa eta parte hartzea hobetzeko neurriak, eta parte hartzean eragina dituzten



Gatzozpindu Dinamizazio Politikorako Ikastaroa

baldintzei ere erreparatuko diegu.

3. PARTAIDETZA ETA ANIZTASUNAREN KUDEAKETA

Kidea-Taldea-Proiektuaren hirukia buruan izango dugu botere harremak eta desorekaren kudeaketa aztertzeke eta baliabideak emateko. Horretaz gain, aniztasunari eusteko hainbat gako landuko ditugu, baita aliantzak egiterakoan kontuan hartu beharrekoak ere.

4. KOHESIOA-SENTIMENDUAK-KOMUNIKAZIOA

Horretarako tresna desberdinak jorratuko ditugu, eta talde kohesiorako estrategia bezala borrokaren mistika eta espazioaren zaintza landuko ditugu.

5.1 GATAZKAK

Gatazkak presente daude gure taldeetan baina zein gatazkak daude? Eta zein jarrera daude gatazkarekiko? Haiek aztertzeke eta bideratzeko tresnak jorratuko ditugu.

5.2 ERASO MATXISTEN PREBENTZIORAKO GOGOETA ETA MATERIALA

Gaiaren kokapena egiteko hainbat testu eskuragarri ipiniko ditugu eta horretaz gain, eraso sexista/matxistak kudeatzeko protokolo bat egiteko pausuak-ariketak ere proposatuko ditugu.

6. PARTE HARTZE PROZESUAK

Parte hartze prozesuak antolatu nahi ditugunean kontutan izateko hainbat gako ikusiko ditugu eta horretaz gain, prozuaren hainbat momentuetan erabilgarriak izan daitezkeen tresnak ere bai.

7. ERABAKIAK HARTZEKO TRESNAK-MEKANISMOAK-GOGOETAK

Gure taldeetan maila ezberdineko erabakiak hartzen ditugu etengabe, erabakitze prozesu horiek talde kohesioa kontuan harturik eta botere harremanei erreparatuz zaindu behar ditugu, eta horretarako mekanismoak eta tresnak aztertuko ditugu.



Gatzozpindu Dinamizazio Politikorako Ikastaroa

8. TALDEAREN EGITURA ETA INDAGAZIOA

Taldea zer den, zein egiturak dituen eta bertan zein rolak dauden landuko dugu.

7) FORMATOA eta ANTOLAKETA nola irudikatzen dugu?

Oraingo honetan **2019ko otsailetik ekainera bitartean gauzatuko den ikastaroa proposatzen dugu**. Ikastaroak **hiru momentu presentzial** izango ditu, eta bitartean, partaideek **euren kolektiboetan egin beharreko lana**.

NOIZ	MOMENTU PRESENTZIALAK	BITARTEAN BAKOITZAK BERE KOLEKTIBOAN
Urritik - abendua 17		Matrikulazioa taldeko babesarekin <ul style="list-style-type: none">• Matrikulazioa egin eta lehenengo asteburu bitartean kolektiboak ikastaroan ikasitako dinamika eta praktika batzuk era batera edo bestera taldean martxan jarriko dituela adostuko du.• Kolektibo bakoitzak, bere behar eta errealitatearen arabera, erabakiko du zer prozesu egin nahi duen (aurrerago ere erabaki dezake)¹.
Otsaila 22-23-24 *Asteburuko saioa	Atarikoak <ul style="list-style-type: none">• Taldea ezagutu• Ikastaroaren metodologiak azaldu	

¹ Prozesuaz hitz egiten dugunean, esan nahi dugu kolektiboa prest egon behar dela ikastaroan ikasitako zerbait bere baitan praktikatzeko. Kolektibo bakoitzak erabakiko du zer praktikaturiko duen bere beharra, nahi eta ezaugarrien arabera. Adibidez, talde batek barne kohesioa lantzeko saio bat egitea adostu dezake, edo beste batek bilera guztietan barne kohesiorako zerbait xumea egitea erabaki dezake, edo baten batek barne antolaketa hobetzeko apustua egin dezake... Prozesua guztiz irekia da eta eragile bakoitzak ezaugarrituko du. Hori bai, bileren dinamizazioa, elementu gehiagorekin edo gutxiagorekin, kolektibo guztiek egin beharreko lana da



Gatzozpindu Dinamizazio Politikorako Ikastaroa

	<ul style="list-style-type: none"> Gaitegiaren lehenengo partea landu 	
Bi hilabete ia-ia		<p>Taldean aztertu zer landu nahi den.</p> <ul style="list-style-type: none"> Kolektibo bakoitzak, bere behar eta errealitatearen arabera, erabakiko du zer prozesu egin nahi duen. Horretarako, kolektiboak galdetegi bat beteko du, bertan azaldutakoak eztabaidatu eta zer gaia, batez ere, landu eta praktikatu nahi duten erabakiko du. Horrez gain eta lehenengo asteburuan ikasitakoak aintzat hartuta, bileren dinamizazioa hasiko du.
<p>Apirila 18, 19, 20 eta 21 **4 egunetako topaketak.</p>	<p>Gaitegiaren mamia</p> <ul style="list-style-type: none"> Gaitegia garatuko dugu Kolektiboetan egindako lanaren aurkezpena egingo da. Teknika eta dinamika diferenteak esperimenteratuko ditugu. 	
Bi hilabete ia-ia		<p>Taldean praktikatu</p> <ul style="list-style-type: none"> Partaideen kolektiboetan erabakitako prozesua abiatuko da eta BPPtik jarraipena egingo da². Prozesuaren balorazioa egingo da.
<p>Ekainaren 14, 15 eta 16 Asteburuko saioa.</p>	<p>Itzulera eta itxiera</p> <ul style="list-style-type: none"> Kolektiboetan egindako lanaren itzulera. Kurtsoko balorazioa. 	

² Erabakitzeke nolako jarraipena egingo den



Gatzozpindu Dinamizazio Politikorako Ikastaroa

***Asteburuko saioa:** Ikastaroa zapatu goizean hasiko da, domeka eguerdi arte. Hala ere, ostiraletan lotara etortzea gomendatzen dugu, hurrengo egunean puntual eta fresko martxan hasteko. Ostiraleko gaua, hautazkoa izan arren, prezio barnean dago.

**** 4 egunetako topaketak:** Aste Santuko jai egunetan da, domeka arratsalde arte, hala ere, asteazkenean 17an lotara etotzeko aukera dago eta gomendatzen da aurretik aipatutakoagatik.

Oraingoan, derrigorrezkoa da partaideek euren kolektiboen babesa izatea. Kolektiboetan aplikatu beharko dute ikastaroan zehar ikasten dutena, eta horregatik ikusten dugu beharrezko hasieratik kolektiboen babesa izatea. Horretaz gain, **3 saio presentzialetara etortzea ezinbestekoa da.**

JZMk bideratuko du gogoeta eta metodologia, horretarako sortuko den BPP (Bilgune Politiko Pedagogiko) baten bidez. JZMko kide hauen ardura da partaideen jarraipena egitea eta kolektiboetako prozesuetan erreferente edo laguntzaile izatea. Horretaz gain, **JZMko kide batek koordinatuko ditu:** diruzaintza, sukaldari taldea, erosketa eta menuak, lekuak behar duena...

8) MATRIKULA

Ikastaroak 200 euro balio ditu. Prezio horrek, hiru egonaldietako otordu eta alojamendu gastu guztiak barnebiltzen ditu.

9) IZENA-EMATEKO EDOTA KONTAKTATZEKO

Edozein zalantza izanez gero edo jada izena eman nahi baduzu, email honetara harremanak@joxemizumalabe.eus idatzi edo telefono honetara deitu 686728843 (Pili)

GATZOPINU DINAMIZAZIO POLITIKORAKO IKASTAROA

IKASTAROA

1. SAIOAK + 2. BAKOITZAK BERE KOLEKTIBOAN

1. SAIOA
ATARIKOA
- otsailak 22-24 -

2. SAIOA
GATZEGIAREN MAMIA
- apirilak 18, 19, 20, 21 -

3. SAIOA
EBANIZIA
- Ekainak 14-16 -

MATRIKULAZIOA
TALDEAREN
BARRERAKIN
- abendu 17 arte -

Zer lauru
taldean
artertu?

PREBUNTATU
IKASITAKOA

Metodologia

Partaideen zerrezinako:

- taldeak izen- emate / babesu
- 3 saioetara etortzea
- ikasitako, ahol den heinean, txertatu bere kolektiboan
- *Kolektiboan konprometitzea praktikatzeko

JEM:
autodiruzketa
ete sagoete

Helburuak

- HM ko hainbat lide euren kolektiboan berriz jantziaren dinamikaziazin trebatzea eta ahalduntzea.
- taldearen lan dinamikak, talde-kernearen eta egiteko moduak politizatzea, garrantzia eman, arretu jarri eta tresnak eskuratzeko.
- dinamizazio sarean eraberritzea

Gaitzia

- dinamizazioa
- saioen prestatzea
- taldearen hausnarketa
- erabiltzeko prozesuak
- partidetze eta auzitesua
- sentimendu/errotak
- komunikazioa
- gaitzak
- eraso sistekin prebentzioa

MATRIKULA 200€ LO EGITEKO TOLUA + JANARIA